

ANDRE DONOSTIARRAREN ERRETOLIKA



Beste erre kardari asko oi dabilzan bezala, au batetik bestera bere gauzak saltzen, edo tratuan zebillen. Erri batean, ala bearrez, galai gazte batekin topatu zan: eta ikusi, ta ezagutu zueneko, abegor chit gozo, ta kunplimentu chit andiak egiten asi zitzaion. ¡Ai au enkontrua! Ziña eta bedeika: au galaia! Au joia preziatua! Ause bai gure Donostia-ko semea degula! Onela beste milla edertasun gazte orri esan ziozkan.

Arako beren tratu gauzetara etorri ziranean, orra non gure galaiak eskeñi charren bat egin, ta bear etzan moduren bat erre kardariari epakutsi, ta biak aserratu ziran: ta tortilla goitik bera irauli, ta andrearen beletak jirabuelta ariñ eman, ta gaztearen kontra biurtu, besoak gerrian ifiñi, ta desaire guziak esaten asi zitzaion: Nere jende onak, zer ikusi bear ote degu? Zér eskeñi degu au, edo nórk egin digu? Oni begira: au nongoa ote degu? Onen pachadari begira! Ea: ken orpoetatik, koartoa bosteko estampa: ken gure begietatik: ez guri beñtzat orrelakorik. Au nor degu? Gu español purupuruak. Au nongoa dan eztakigu. Gure aita ta ama franzesak ziran: baña gu español garbiak, San Bizente-ko Pontean bateatuak. Jende onak: au ¿zér degu? Ken ortik, ai au kontua! Deabruak ikusi du golillarekiñ astoa.

Eta onela beste gauza asko, edo aora zetozkionak ausardia andiarekin esan, eta galai ori lotsaturik utzi zuen: eta estudiantea bazan ere, bere Legeak eta Erretolika, Andrearenak ondatuziozkan, ta bereak, eta geiago aditu, ta geiagoren bildurrak isillik iges egin-erazioz.

A. AGUSTIN CARDABERAZ.

